


PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

PIZTU EUSKARA

Gure hitzek argitzen dute herria

AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA | AZAROAK 30 | OKONDO



Sarrera

Euskara babestu, indartu eta maitatu. Horixe da gure helburua, eta urtero bezala, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak herri bati eskaintzen dio Euskararen Eguna antolatzeko lekukoa.

Aurten, Okondoren txanda da. Erreken artean, mendien babesean eta jende euskaldunaren arnasean, ospatuko dugu Euskararen Eguna, azaroaren 30ean.

Eguna bera baino gehiago, prozesua bera da ospakizuna: ikasleek, irakasleek eta herritarrek elkarrekin partekatzen dute hizkuntzaren bizitasuna. Euskara gure altxorra da, eta altxorrak bezala, zaindu eta partekatu egin behar da.

Helburuak

Okondoko altxorrak eta herriaren ondarea ezagutzea, euskararen bidez balioan jarri eta herri-identitatea landuz.

Euskara babesteko eta indartzeko jarrerak sustatzea, ikasleen artean motibazioa eta parte-hartze aktiboa bultzatuz.

Sormena eta adierazpen gaitasuna garatzea, haur eta gazteek euskaraz sortu, pentsatu eta partekatzeko espazio kolektibo baten bidez.



Zer dakizu Okondoren inguruan?

Okondo herri txikia da, baina bizitasunez eta istorioz beterikoa.

Herri bakoitzak bere altxorrak ditu, eta hemen aurkezten dizkizuegu Okondoko batzuk.

Hauek herriaren bihotza eta euskararen oihartzuna dira:

Okindegia

Goizero irekitzen den leku beroa, ogiaren usainarekin batera "Egun on!" entzuten den tokia.

Hitz goxoak, keinuak eta irribarreak gurutzatzen diren espazioa.





Artzainaren eskultura

Okondoko sarreran dago, herriaren
sustraiak irudikatuz: lurra, lana eta
hizkuntza.

Euskara, belaunaldiz belaunaldi,
artzainaren isiltasunetik bizirik
datorren hizkuntza.

❖ ❖ Kirikiñausia- / /

Izena bera altxorra da! Herriko izaera jostaria eta berezia adierazten du, nortasun handiko hitza.

Euskara bezalaxe, bitxia, bizia eta berea.



Galdera bat....

Eta zeintzuk dira zure herriko altxorrak?

Zer zaindu nahiko zenuke? Zerk egiten du berezi zure herria,
zure hizkuntza?



Eskola bakoitzak hausnarketa txiki bat egin dezake:


Haur Hezkuntzan: marrazki baten bidez.

Lehen Hezkuntzan: testu edo collage batean.

DBHn: mezu, bertso edo audio labur batean.


👉 Helburua: gure herrietako altxorrak euskaraz izendatzea
eta partekatzea.






ERRONKA

PIZTU EUSKARA




Zein da erronka?



Okondoko eskolak aurten erronka berezi bat proposatu du:


PIZTU EUSKARA!

Eskualdeko ikasle guztiei gonbita egiten diegu:
gela bakoitzak euskarari garrantzia emateko eta indartzeko mezuak idatziko
ditu bonbilletan (paper edo kartoi formako "argitxoetan").






Mezu horiek Okondora eramango ditugu
azaroaren 30ean, Euskararen Egunean, eta denok
batera osatuko dugu PIZTU EUSKARAREN mural
erraldoia.

Bonbilla bakoitzak argituko du euskararen aldeko
mezua, eta guztien artean piztuko dugu gure
hizkuntzaren argia.



Etorri Okondora
Euskararen Eguna
eta ekarri zure
bonbillak!








Euskara gure altxorrik handiena da: ezkutuan dagoenean galdu egiten da, baina pizten dugunean mundua argitzen du.

Eskerrik asko zuen parte-hartzearengatik eta zuen hitzengatik.

Azaroaren 30ean, Okondon, elkarrekin piztuko dugu argia:

PIZTU EUSKARA

Okondo





EGITARAUUA

09:30 MENDI BUELTA

11:00 HAMAIKETAKO ETA SALDA

11:00 PUZGARRI ETA JOLASAK

11:30 ELKARTEEN AZOKA

13:00 AIMARA ANTZERKIA

13:45 EKITALDI NAGUSIA

14:30 BAZKARIA

15:30 1,2,3 DISKO FESTA

16:00 KAITIN ALLENDA BAKARRIZKETA

16:45 EGURREZKO JOLASAK



16:45 EINGO TALDEA DANTZA PLAZA

18:00 JON OZAETA DJ

GAINERA...

MEMEALDIA 4.0

EUSKARAKTIBATU ZOZKETA!



EUSKARAREN ERROTA

Euskararen errota dantza eta abestiadas ezagutzen?

Okondon dantzatzeko tarte hartuko dugu!


ABESTIA HEMEN!

DANTZAIKASI NAHI? SAKATU HEMEN!





INFORMAZIO GEHIGARRIA



Ikas-biddaiarako materiala saltzeko edo proiektu zehatz bat erakusteko euskararen egunaren baitan egingo dugun kultur eta proiektu azokan mahai bat jar dezakete ikasleek.

Horretarako aurrez
info@aialaldekoekalgintza.eus
helbidera idatzi



MEMEALDIA 4.0

Euskarazko Memeen lehiaketa LH6tik aurrerako ikasleentzat, adin muga gabe.
Bidali memeak 688726665
(azaroak 1 - azaroak 30)

Egilearen izenik gabe argitaratuko ditugu
istagramen.

